



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maraoaren 23a

48. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—10-23/LEY-00004. Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—10-23/PRO-00002. Foru Legea, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

—10-23/PRO-00003. Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailearen 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailearen 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (14. or.).

—10-23/PRO-00005. Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (14. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—10-23/MOC-00027. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean eratu dezan NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuako enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea. Ekonomia eta Ogasun Batzordeak onetsia (15. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—10-21/PON-00003. Txostena, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko eratutako ponentziarena. Kultura eta Kirol Batzordeak onetsia (16. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-23/LEY-00004. Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Legea.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Legea**

#### HITZAURREA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 57. artikuluko c) letrak xedatzen du Nafarroari dagokiola ingurumena lege bidez garatu eta betearaztea.

Arau hori oinarri hartuta, eta Nafarroako herritarrek ingurumena babesteari buruz zuten kezka gero eta handiagoari erantzuteko asmoz, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ingurumen Kontseilua sortu zuen 1993. urtean. Kontseilu hori eratu zen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legean xedatutakoari jarraituta, eta atxiki zitzaion orduko Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen Departamentuari.

Hasieran, ingurumen-kudeaketa errazteko eta hobetzeko sortu zen kontseilua. Garapen jasangarriaren bilaketan murgildu zen, eta hartan parte hartu zuten ikerketaren, kirolaren eta natura babestu eta aztertzearen arloetako erakunderik nabarmenenek, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beraren teknikari batzuek ere.

Espainiako Konstituzioan ezarritakoaren arabera, ingurumena eskubide bat da, herritar guztiek dute hura behar bezala baliatzea, eta, halaber, pertsona guztiek dute, botere publikoekin

harmonian, ingurumena zaintzeko eta babesteko betebeharra. 1998ko ekainaren 25ean, eta eskubide hori berme handiagoz betetze aldera, ingurumen arloko hitzarmen bat sinatu zen Aarhus-en, honako hauei helduta: informazioa eskuratzea, jendearen parte-hartzea erabakiak hartzeko orduan eta justiziara jotzea. Horri dagokionez, hitzarmenean aldarrikatu zen ezen ingurumen egokirako eskubide hori baliatzeko moduan egoteko, eta hura kontserbatzeko eta errespetatzeko betebeharra betetzeko, herritarrek ingurumen informazio garrantzitsua eskuratu behar dutela, eta horrek legitimatu eginen dituela ingurumenaren arloko erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko.

Autonomia-erkidegoan, Nafarroako araudiak dagoeneko jasotzen du, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean, herritarrek badutela eskubidea benetan eta eraginkortasunez parte hartzeko erabakiak hartzeko orduan, ingurumenean esku hartzeko planetan eta programetan, alde zurretik eta kontsulta-izaeraz egindako parte-hartze prozesu baten bidez.

Kontuan hartuta zer helburu ezarri ziren Konstituzioan eta aipatutako Aarhusko Hitzarmenean – Nafarroako beste arau batzuetan jaso da hitzarmen horretan ezarritakoa –, zenbait aldaketa eta egokitzapen egin beharra dago Nafarroako Ingurumen Kontseilua eratzeko arauan. Izan ere, ahaztu gabe gero eta handiagoa dela ingurumena babestearen inguruko kezka, baita ingurumenak garapen sozialean eta ekonomikoan duen eragina ere, parte-hartze irekiago eta zuzenago bat bideratzeko baliabide eta tresna berriak sartu beharra dago, egungo gizarteak berezko dituenak, hizpide dugun organoa, hasiera batean izatera tekniko eta aditua zuena, egiazko parte-hartze foro bihur dadin, zeinean piztuko baita hainbat alderdiren arteko eztabaida, eta islaturik egonen baitira pertsona eta talde guztien interesak.

Horrela, bada, beharrezkotzat jo da egun kontseilua osatzen duten entitateez gain beste erakunde batzuek ere tokia izatea hartan, adibidez: Nafarroako Parlamentuan dauden parlamentu-taldeak, FORESNA-ZURGAIA baso-jabeen elkarteak, ADEMAN zuraren arloko enpresaburuen Nafarroako elkarteak, Landa Garapenerako Plana aplikatzeko toki ekintzako taldeak, elkargo profesionalak, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, Nafarroako Adinekoen Kontseilua, Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera Berdintasuna Sustatzeko Kontseilua, eta Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera. Erakunde horietako bakoitzak pertsona bat izendatu behar du Nafarroako Ingurumen Kontseiluan haien ordezkari izateko, eta, horrela, kontseilu hori kide anitzeko organo bat bezala eratuko da, zeinetan ordezkaturik egonen baitira bai gizarteak baita ingurumenaren babesean esku hartzen duten eragileak ere.

Gainera, gizartearen bilakaeraren eraginez, eta betetze aldera Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen lege-agindua, beharrezkoa da arau honetan genero-berdintasuna txertatzea, eta hala xe egin da 4. artikuluan, zeinetan ezarri baita oreka bermatuko dela kontseilukideen artean.

Aurrekoarekin bat, Nafarroako Ingurumen Kontseilua izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza, kontsulta eta aholkularitzako kide anitzeko organo gorena ingurumen arloan.

Horregatik, beharrezkotzat jo da, halaber, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren hegalpean sartzea gaur egun ingurumenaren arloan dauden aholku-batzordeak; zehazki, honako hauek: Arrantzako Aholku Batzordea, Ehizako Aholku Batzordea eta Nafarroako Basogintzako Aholku Kontseilua. Gainera, sektore-eremu guztiak aholku-batzorde batean isla daitezten, honako hauek sortzea ezartzen du foru legeak: Biodibertsitatearen Aholku Batzordea, Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordea eta Klima Aldaketaren Aholku Batzordea (Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordetzat hartzen da Hondakinen Planaren Jarraipen Batzordea, zeina ezarri baitzen Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 13. artikuluan; Klima Aldaketaren Aholku Batzordetzat, berriz, Klimaaldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua deritzona, zeina ezarri baitzuen 8. artikuluan Klima Aldaketari eta Energia

Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak).

Horrez gain, proposatzen da honako hauek indarririk gabe utz daitezten: 1/1993 Foru Legea, otsailaren 17koa, Nafarroako Ingurumen Kontseilua sortzeari buruzkoa; 488/1995 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Nafarroako Uraren Kontseiluari buruzkoa; 138/2001 Foru Dekretua, ekainaren 4koa, Ingurumen Hezkuntza eta Komunikazioa Garatzeko Departamentuarterko Batzorde Teknikoa eratzen duena, eta 120/2001 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Nafarroako Ingurumen Hezkuntzaren Batzorde Aholku-emailea eratzen duena. Adierazi behar da, halaber, ez dagoela inolako dokumentaziorik organo horiek noizbait eratu edo bildu direla egiaztatzen duenik. Beraz, egokitzen jotzen da bi foru dekretuak indargabetzea, Nafarroako Ingurumen Kontseilua izendatu ahal izateko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ingurumen-arloko organo aholku-emaile gorena.

Horrela, bada, Nafarroako Ingurumen Kontseilua osatzen dute foru legearen 5. artikuluan izendatutako pertsonak eta batzorde aholku-emailetako kideak.

Aurrekoan oinarrituta, foru legeak ezartzen du ezen Nafarroako Ingurumen Kontseiluak Osoko Bilkuraren eta aholku-batzordeen bitartez beteko dituela esleitura dituen eginkizunak. Osoko Bilkura da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren erabaki-organoa gorena, eta honako hauek osatzen dute: burua, buruordeak eta idazkariak lagunduta; Foru Komunitateko Administrazioa ordezkatzeko kideak; erakunde eta elkarteetako kideak, eta aholku-batzorde bakoitzak kontseilukide aholkulari gisa izendatutako pertsonak. Aukera berri bat jaso da: hala eskatzen duen oro entzule gisa joan ahal izanen da Osoko Bilkuraren bileretara.

Labur esanda, foru legearen xedea da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea. Hiru kapitulutan egituratu da: I. kapitulua (xedapen orokorrak), II. kapitulua (osaera) eta III. kapitulua (antolaketa eta funtzionamendua), eta baditu bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Foru lege hau prestatzeko prozesuan, Nafarroako Ingurumen Kontseiluak hainbat eztabaida-saio egin ditu. Saio horietan, egun kontseilu horretan dauden elkarteek eta erakundeek zenbait iradokizun eta ekarpen egin dituzte, zeinak, hein handi batean, foru lege honi gehitu baitzaizkio.

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

#### 2. artikulua. Izaera juridikoa.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseilua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza, kontsulta eta aholkularitzako kide anitzeko organoa ingurumen arloan.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseilua ingurumen arloko eskumenak dituen departamentuari atxikiko zaio, eta departamentu horrek emanen dizkio behar bezala funtzionatzeko behar dituen baliabide materialak eta giza baliabideak.

#### 3. artikulua. Araubide juridikoa.

Nafarroako Ingurumen Kontseilua foru lege honetan xedatutakoaren arabera arautuko da, bai eta martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean kide anitzeko organoei buruz xedatutakoari jarraituta ere (11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa).

#### 4. artikulua. Eginkizunak.

Honako hauek dira Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ingurumen arloan aholku ematea.

b) Honako hauen alde dagoen edo ez dagoen adieraztea, nahitaez:

1. Ingurumenaren arloko lege-aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak.

2. Ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak sustatzen dituen planak eta programa estrategikoak.

3. Ingurumenaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren aurrekontuen aurreproiektua.

c) Ingurumenaren arloan azterlanak eta txostenak egitea eta gomendioak helaraztea, bere ekimenez edo Foru Komunitateko Administrazioak eskatuta.

d) Xedapenak eta jarduerak egitea proposatzea, ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuari dagokion gaietan.

e) Ingurumenaren arloko ikerketa-, ezagutza-, sentsibilizazio- eta dibulgazio-ekintzei buruzko proposamenak egitea.

f) Ingurumen-hezkuntzako neurriak proposatzea, gizartea balio ekologikoei eta ingurumen-balioei buruz informatu, orientatu eta sentsibilizatzeko.

g) Ingurumenaren babesarekin zerikusia duten jardueren lotutako enplegua sortzea eta ingurumen-arazoak konpontzeko herritarren parte-hartzea sustatuko duten neurriak proposatzea.

h) Ingurumenaren eta garapen jasangarriaren arloko nazioarteko hitzarmenak hobeki betetzeko egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzea, indarrean dauden arauen eta programen eraginkortasuna baloratu eta, hala badagokio, dagozkion aldaketak proposatu.

i) Ingurumen politikan, unibertsitateen eta ikerketa zentroyen parte-hartzea bultzatzea.

j) Nafarroako Ingurumen Kontseiluan ingurumenari eragiten dioten gaien buruzko eztabaidak egitea, hura modu iraunkorrean osatuko duten elkarteek proposatuta, eta herritarrek ingurumen-arazoaren konponketan parte hartzeko bideak ezartzea.

## II. KAPITULUA

### Osaera

#### 5. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseilua honako pertsona hauek osatuko dute:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari hauek:

Lehena. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren titularra.

Bigarrena. Ingurumen arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularra.

Hirugarrena. Ingurumenaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiko zerbitzaburuak.

Laugarrena. Ordezkari bat, gai hauetan eskumena duen zuzendaritza nagusi bakoitzetik: landa-garapena, nekazaritza eta abeltzaintza, industria, energia, garraioak, turismoa, toki-administrazioa, herri-lanak, babes zibila eta lurralde-antolamendua.

b) Hainbat erakunde eta elkarteren ordezkariak:

Lehena. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkari bat (hautapen bidezko kargua).

Bigarrena. Ordezkaritza bat Nafarroan dauden bi unibertsitateetako bakoitzetik (ingurumen arloan adituak).

Hirugarrena. Lau ordezkaritza, Nafarroan bazkide gehien dituzten erakunde ekologistetatik.

Laugarrena. Nafarroako Mendi Federazioaren ordezkaritza bat.

Bosgarrena. Nafarroako Ehiza Federazioaren ordezkaritza bat.

Seigarrena. Nafarroako Arrantza Federazioaren ordezkaritza bat.

Zazpigarrena. Nafarroako Ehiztarien Elkarteko ordezkaritza bat.

Zortzigarrena. Ordezkaritza bat Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten erakunde sindikal bakoitzeko.

Bederatzigarrena. Ordezkaritza bat Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten enpresaburuen elkarte bakoitzeko.

Hamargarrena. Ordezkaritza bat Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten nekazaritza- eta abeltzaintza-erakundeetako bakoitzeko.

Hamaikagarrena. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duen nekazaritzako elikagaien kooperatiben elkarteko ordezkaritza bat.

Hamabigarrena. Ordezkaritza bat Nafarroako Parlamentuan dauden talde parlamentario bakoitzeko.

Hamahirugarrena. FORESNA-ZURGAIA basojabeen elkartearen ordezkaritza bat.

Hamalaugarrena. ADEMAN Nafarroako zura- ren arloko enpresaburuen elkarteko ordezkaritza bat.

Hamabosgarrena. Ordezkaritza bat Nafarroan legez eraturako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen arteko ordezkaritza handiena duenaren izenean.

Hamaseigarrena. Ordezkaritza bat Landa Garapenerako Plana aplikatzeko toki-ekintzako talde bakoitzeko.

Hamazazpigarrena. Lanbide elkargoen hiru ordezkaritza, zeinak proposatuko baititu ingurumen arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko titularrak.

Hemezortzigarrena. Kide bat, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak proposatuta.

Hemeretzigarrena. Kide bat, Nafarroako Adinekoen Kontseiluak proposatuta.

Hogeigarrena. Kide bat, Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera Berdintasuna Sustatzeko Kontseiluak proposatuta.

Hogeita batgarrena. Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak proposatutako kide bat.

Hogeita bigarrena. Ordezkaritza bat ingurumenerekin lotutako ikerketa zentroen izenean.

c) Aholku-batzordeetako kideak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa bermatuko du Nafarroako Ingurumen Kontseiluko titularrak izendatzeko orduan, bat etorrita Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoarekin. Horretarako, titularrak eta ordezkoak proposatzean, ahalegina egingen da emakumeen eta gizonen arteko oreka errespetatzeko.

**6. artikulua.** Kontseiluko burua.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak izanen da kontseiluko burua.

2. Kontseiluko buruak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 21. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

3. Kargua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan, kontseiluko buruaren ordez buruordea arituko da.

**7. artikulua.** Buruordea.

1. Ingurumen arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularrak izanen da buruordea.

2. Kontseiluko buruak edo Osoko Bilkurak esleitzen dizkion eginkizunak beteko ditu buruordeak, kontseiluak kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendu ona izan ditzan.

3. Buruorde kargua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan, pertsona bat izendatuko da, ingurumen arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko zerbitzuetako titularraren artean, haren ordez aritu dadin.

**8. artikulua.** Idazkaritza.

1. Idazkaritza egokituko zaio ingurumenaren araubide juridikoaren atalaren edo zerbitzuaren titularrari.



2. Idazkariak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 22. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

3. Idazkari kargua hutsik dagoenean, titularra kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan, haren ordezkari izango da Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalean administrazio publikoko teknikari (arlo juridikoa) lanpostua betetzen duenak.

#### **9. artikulua.** Kontseilukideak.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kide izanen dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari izendatutako pertsonak –burua, buruordea eta idazkaria bazter–.

b) Erakundeen eta elkarten ordezkari izendatutako pertsonak.

c) Aholku-batzorde bakoitzak kontseilukide aholkulari gisa izendatutako pertsonak.

2. Kontseilukideek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen dituzte.

3. Zenbat kide titular diren, beste hainbeste ordezkari izendatuko dira, ordezkariak egin ahal izateko kargua hutsik dagoenean, titularra kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan.

**10. artikulua.** Kontseilukideak hautatzea eta izendatzea.

1. Kontseilukide titularrak eta ordezkariak hautatzeko, idazki bat igorriko zaio idazkaritzari, eta hark kontseiluko buruari helaraziko dio, izenda ditzan.

2. Erakunde edo elkarte bakoitzak hautatuko ditu dagozkion kontseilukideak.

Baldin lau erakunde ekologistetakoa batek ez badu pertsona bat hautatzen Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kide iraunkor izan dadin, edo kide izateari uko egiten badio, galdetuko zaio Nafarroan bazkide gehien dituen hurrengo erakunde ekologistari ea kontseiluko kide izan nahi duen, eta baiezkoa ematen badu, ordezkari bat hautatzeko eskatuko zaio. Horrela egingen da hurrenez hurren, harik eta erakunde ekologisten lau ordezkariak hautatu arte.

3. Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kideak izendatuko dira ingurumen arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez.

#### **11. artikulua.** Iraupena.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseilua lau urtean behin berrituko da.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluak jardunean jarraituko du harik eta hura aurrerantzean osatuko duten pertsonak izendatu arte, ingurumen arloan eskumena duen departamentuko titularren foru agindu bidez.

#### **12. artikulua.** Kide izateari uztea.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseiluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari diren pertsonak beren kargu publikoak betetzeari uzten diotenean utziko diote kontseiluko kide izateari.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kide izendatu diren gainerako pertsonak kide izateari utziko diote honako arrazoi hauetako bat artean denean:

a) Izendapen aldia bukatzea.

b) Hautatu zituzten erakunde edo elkarteek proposaturik.

c) Norberak eskatuta.

d) Desgaikuntza edo ezgaitze judiziala, edo heriotza.

3. Behar baino lehen gertatzen diren hutsuneak aurreko artikuluan ezarri bezala beteko dira. Kontseiluko kide berriaren izendapen aldia bukatuko da Nafarroako Ingurumen Kontseilua berritzen denean, non eta ez den gertatzen aurreko apartatuan ezarritako egoeretako bat.

### **III. KAPITULUA**

#### **Antolaketa eta funtzionamendua**

##### **1. atala** **Antolaketa**

#### **13. artikulua.** Organoak.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluak honako organo hauen bidez beteko ditu esleituta dituen eginkizunak:

a) Osoko Bilkura.

b) Aholku-batzordeak.

#### **14. artikulua.** Osoko Bilkura.

1. Osoko Bilkura da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren erabaki-organo goren.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren Osoko Bilkuran honako hauek daude: burua, buruordeak eta idazkariak lagunduta; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldeko kontseilukideak; erakunde eta elkarteetako kontseilukideak, eta kontseilukide aholkulari bat aholku-batzorde bakoitzeko.

3. Aholku-batzorde bakoitzak pertsona bat hautatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako ez diren pertsonen artean, bere ordezkari izan dadin Osoko Bilkuran.

4. Ondoko hauek dira Osoko Bilkuraren eginkizunak:

a) Foru lege honen 4.b) artikuluan ezarritako gaiari buruz iritzia ematea.

b) Ingurumenaren arloan eskumenak dituen departamentuak, ingurumen arloan eragin edo garrantzi handia dutela irizita, Osoko Bilkurari helarazten dizkion gaiari heltzea.

c) Aholku-batzorde batek Osoko Bilkuran eztabaidatzeko proposatzen duen edozein gairi hiltzea.

d) Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari gisa hautatu ez diren kide iraunkorren ehuneko hamarrek, gutxienez, eskatzen dituzten gaiak, baldin eta Kontseiluaren eginkizunekin zerikusia edo ingurumenean garrantzi edo eragin berezia badute.

#### **15. artikulua.** Aholku-batzordeak.

1. Hauek dira Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren aholku-batzordeak:

- a) Basogintzako Aholku Batzordea.
- b) Ehizako Aholku Batzordea.
- c) Arrantzako Aholku Batzordea.
- d) Biodibertsitatearen Aholku Batzordea.
- e) Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordea.
- f) Klima Aldaketaren Aholku Batzordea.

2. Aholku-batzordeen sorrera, osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

3. Aholku-batzordeek honako eskumen hauek dituzte: proposamenak egitekoa, administrazio arloko erabakiak hartzeko oinarri hartuko diren nahitaezko txostenak egitekoa, eta jarraipen eta kontrolerako eskumena. Beraz, informazioa jasoko dute eta eztabaidagai izanen dituzte, zeinek bere esparru espezifiko foru legeen aurreproiektuak, foru dekretuen proposamenak eta bestelako

arauak, bai eta esparru espezifiko horretako estrategiei edo planei buruz ere.

## **2. atala** **Osoko Bilkuraren eta** **aholku-batzordeen funtzionamendua**

### **16. artikulua.** Osoko bilkurak.

Osoko Bilkurak urtean behin eginen du, gutxienez ere, bilera arrunta. Era berean, bilera bereziak egin ahal izanen ditu Kontseiluko buruak erabakitzen duenean edo Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari gisa hautatu ez diren kontseilukide iraunkorren herenak, gutxienez, hala eskatzen dionean, idatziz, kontseiluko buruari.

### **17. artikulua.** Osoko bilkurarako deia.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osoko bilkuretarako deialdiak eginen dira, gutxienez ere, bilkura egiteko aurreikusitako eguna baino hamar egun natural lehenago. Salbuespenez, epe hori laburtzen ahalko da, Kontseiluko buruak erabakitako presako arrazoiak tarteko direnean.

2. Ingurumenaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren aurrekontu-aurreproiektuari buruzko bilkuraren deialdia eginen da bat etorrita ekonomiaren eta ogasunaren arloan eskumena duen departamentuak aurrekontuak prestatzeari dagokionez onetsi dituen jarraibide ekonomiko eta teknikoekin.

3. Deialdia bitarteko elektronikoaren bidez egiten da, eta bertan adieraziko dira gai-zerrenda, saioa zer baldintzatan eginen den eta, hala bada, dagokio, konexio-sistema. Gainera, ahal denean, eztabaidatzeko beharrezkoa den dokumentazioa igorriko da.

### **18. artikulua.** Osoko Bilkura eratzea.

1. Osoko Bilkura lehen deialdian eta balio osoz eratzeko, beharrezkoa izanen da bertan egon daitezela Kontseiluko burua eta idazkaria edo haien ordezkariak, hala bada, dagokio, eta Osoko Bilkura osatzen duten kideen erdiak, gutxienez ere.

Bigarren deialdian ez da bertaratuen gutxieneko kopururik exijituko, baina beharrezkoa izanen da bertan izan daitezela burua eta idazkaria, edo, hala bada, dagokio, haien ordezkariak.

2. Saioak aurrez aurre edo urrutitik egin ahal izanen dira, eskura dauden tresna teknologikoak baliatuta.

### **19. artikulua.** Adituak Osoko Bilkurara joatea.

1. Osoko bilkuretan parte hartu ahal izanen dute, buruak proposatuta edo kideek berriaz eskatuta, bilkuran aztertu beharreko gaien inguru-

ruan esperientzia edo ezagutza kualifikatua duten pertsonak.

2. Aditua bertaratzeko eskatzen denean, arrazoiak eta justifikazioa eman beharko dira.

3. Eskaera idazkariari bidaliko zaio, bilkura baino bost egun baliodun lehenago gutxienez ere, eta Kontseiluko buruak baloratuko du. Hark erabakiko du egokia den ala ez proposatutako pertsona osoko bilkuran egon dadin. Eskaera egin duenari jakinaraziko zaio, berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez ere, bere eskaera onartu den ala ez.

**20. artikulua.** Osoko Bilkurak erabakiak hartzea.

1. Ezin izanen da eztabaidatu gai-zerrendan ageri ez den gairik.

2. Kideek proposatutako gaiak ere sartu ahal izanen dira gai-zerrendan, baldin osoko bilkura egin baino bost egun natural lehenago jakinarazten badute. Proposamena egokia den edo ez baloratzeko, foru lege honetan Osoko Bilkuraren funtzioei buruz xedatutakoa aplikatuko da. Proposamena zer gairi buruzkoa den, dagokion aholku-batzorde sektorialari birbidali ahal izanen zaio, edo, bestela ere, proposamena egin duenari adieraziko zaio zein den bere proposamena aurkezteko bide egokia.

3. Erabakiak hartuko dira osoko bilkuran dauden Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kideen gehiengo soilez.

4. Foru lege honen 4. artikuluan aipatzen den nahitaezko erabakia bilkura-aktan jasoko da, eta idazkariak ziurtagiri bat emanen du, zeinetan adieraziko baita Kontseilua alde dagoen ala ez, aztertutako gaiarekin.

5. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eztabaiden emaitzak ez dira inola ere lotesleak izanen, baina kontuan hartu beharko dira ingurumen-politikak eta ingurumena babesteko araudia definitzerakoan.

**21. artikulua.** Osoko bilkuraren aktak.

1. Bilera bakoitzaren akta eginen da, eta, hartan, agertuko da nor bertaratu den, zein izan den gai-zerrenda, noiz eta non egin den, deliberazioko punturik garrantzitsuenak, bozketa modua eta emaitza, eta hartutako erabakien edukia.

2. Buruak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, zeinak onetsiko baitira bilera horretan bertan edo hurrengoan.

**22. artikulua.** Osoko bilkuretara libreki sartzea.

Eskatzen duen edonor joan daiteke osoko bilkuretara, entzule gisa, eta gai-zerrendako puntu desberdinetan parte hartu dezake, baldin eta hala eskatzen badu bilkura egin baino bost egun lehenago gutxienez.

**23. artikulua.** Barne-funtzionamendua.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluak bere barne-funtzionamendurako beharrezkoak diren arauak edo akordioak onetsi ahal izanen ditu.

**24. artikulua.** Aholku-batzordeen funtzionamendua.

1. Batzorde bakoitza arautzen duen arauan ezarritakoaren arabera eratu, antolatu eta jardungo dute Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren aholku-batzordeek.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren aholku-batzordeen eztabaiden emaitzak ez dira inola ere lotesleak izanen, baina kontuan hartu beharko dira ingurumen arloko politikak eta ingurumena babesteko arauak zehazteko orduan, zeinenak bere sektore-eremuan.

**25. artikulua.** Informazioa.

Ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak beharrezkoa den informazio guztia emanen dio Nafarroako Ingurumen Kontseiluari bere eskumeneko gaietan behar bezala funtzionatzeko.

### 3. atala

#### Publikotasuna eta urteko memoria

**26. artikulua.** Akten publikotasuna.

Osoko Bilkuraren eta aholku-batzordeen aktak, onetsi ondoren, ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuaren webgunean argitaratuko dira.

**27. artikulua.** Urteko memoria.

Idazkariak, urtero, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren jardueren memoria eginen du, bai osoko bilkurei buruz, bai aholku-batzordeei buruz.

**Lehen xedapen gehigarria.** Nafarroako Ingurumen Kontseiluak kide anitzeko beste organo batzuetan izanen dituen ordezkariak hautatzea

Kontseilua berritzeko saioan hautatuko dira Nafarroako Ingurumen Kontseiluak kide anitzeko beste organo batzuetan izanen dituen ordezkariak.



**Bigarren xedapen gehigarria.** Giza baliabideak eta baliabide materialak.

Ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak, bere aurrekontuen kargura, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren funtzionamendurako beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak emanen ditu eta, hark eskatuta, 4. artikulua Kontseiluari esleitzen dizkion eginkizunei buruzko ikerketa eta txostenak eskatzen ahalko ditu.

**Lehen xedapen iragankorra.** Kontseiluaren eraketa.

Nafarroako Ingurumen Kontseilua foru lege honetan ezarritakoaren arabera eratu arte, gaur egun hura osatzen duten pertsonak osatuko dute, baina foru lege honetan xedatutakoari jarraituko dio.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Lehendik dauden kontseiluak eta aholku-batzordeak.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren mendeko aholku-batzordeen osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen arauzko xedapena onesten ez den bitartean, honako hau bete behar da:

a) Basogintzako Aholku Batzordea: halakotzat arituko da Nafarroako Basogintzako Aholku Kontseilua, bat etorrita Nafarroako Basogintzako Aholku Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ekainaren 23ko 57/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin.

b) Ehizako Aholku Batzordea: haren osaera eta eginkizunak maiatzaren 3ko 144/1993 Foru Dekretuan ezarritakoak izanen dira.

c) Arrantzako Aholku Batzordea: haren osaera eta eginkizunak maiatzaren 3ko 143/1993 Foru Dekretuan ezarritakoak izanen dira.

d) Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordea: halakotzat arituko da Hondakinen Planaren jarrai-

pen batzordea, zeina ezarri baitzen Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 13. artikuluan.

e) Klima Aldaketaren Aholku Batzordea: halakotzat arituko da Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua deritzona, zeina ezarri baitzen Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 8. artikuluan.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, ondoko hauek:

– 1/1993 Foru Legea, otsailaren 17koa, Nafarroako Ingurumen arloko Kontseilua sortzekoa.

– 488/1995 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Nafarroako Ura Kontseiluarena.

– 138/2001 Foru Dekretua, ekainaren 4koa, Ingurumen Hezkuntza eta Komunikazioa Garatzeko Departamentuarterko Batzorde Teknikoa eratzen duena.

– 120/2001 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Nafarroako Ingurumen Hezkuntzaren Batzorde Aholku-emailea eratzen duena.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamenduzko garapena.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta ingurumen arloan eskumena duen departamentuko titularrari eman ditzaten foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**10-23/PRO-00002. Foru Legea, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.****OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa****HITZAURREA**

Abereen gaixotasun kutsagarriek ondorio latzak izan ditzakete abereentzat eta abeltzainenentzat, baita ekonomian ere. Era berean, osasun publikoari eta elikagaien segurtasunari ere eragin diezaiekete. Europar Batasunak, 2007az geroztik, erabaki zuen estrategia berri batekin jokatzeko abereen osasunaren arloan, eta arauen garapenerako oinarritzat hartu zuen “Aurre hartzea, sendatzea baino hobea” dioen printzipioa. Animalien gaixotasun transmitigarriak buruzko 2016ko martxoaren 9ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 Erregelamendua —abereen osasunaren arloko egintza batzuk aldatu edo indargabetu egiten dituena— argitaratzeak norabide horretan lanean segitzeko beharra indartzen du.

Prebentzioari heltzeko garaian, abeltegien kokapena eta diseinua izaten da baldintza nagusietako bat. Abeltegia kokatuta dagoen eremuko abere-dentsitateak baldintzatzen du gaixotasun transmitigarriak izateko arriskua. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da ustiatzearen gehieneko ekoizpen-ahalmena eta abeltegien arteko distan-

tzia arautzea, eta, horrela, abere-dentsitatea mugatzea. Jarduketa horrek apaldu egingen du gaixotasunak zabaltzeko arriskua, erraztu egingen baitu gaixotasun fokuren bat detektatzen denean hura kontrolatu eta desagerrarazteko lana, eta, beraz, haren ondorioak gutxituko baititu.

Abereen Osasunari buruzko egungo Foru Legeak 28. artikuluan aipatzen ditu elementu horiek. Arau honek artikulua horren testua aldatzen du, eta abeltegiaren gehieneko ekoizpen-ahalmena ezartzen duen eranskin bat gehitzen du.

Foru lege honek 39. artikulua aldatzen du, abeltegiari ematen ahal zaion gehieneko kalte-ordainaren zenbatekoa mugatzeko, ustiatzei handiek osasun arriskuen aurrean prebentzio neurriak hartzea eta erantzunkidetasunez jokatzeko sustatzeko helburuarekin.

Era berean, ugalketa-ahalmenaren muga gaitzera tipifikatu egin da azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen zehapen-araubidean sartutako zehapen gisa.

Bestalde, kontuan hartu behar da abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren bidez behitegiak arautzeko oinarritzko xedapenak ezarri direla.

Arau horri jarraikiz, behitegien ekoizpen-ahalmena 850 AzLUtan finkatuta gelditzen da. Gainera, aurreikusten da errege-dekretua indarrean jarri baino lehen abian zeuden eta 1.2 artikuluan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena gaitzera zuten ustiatzearen ahalmen horri eusten ahalko diotela, baina ezin izanen dutela handiagotu, inola ere.

Aipatutako errege-dekretuaren lehen xedapen iragankorrak adierazten duenez, izapidetze-fasean dauden ustiatzearen baimenari buruzko espedienteak, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, baina

ekoizpen-prozesuarekin lotura zuzena duten instalazioak eraikitzen hasteko egin beharreko izapide guztiak beteta bazituzten 2022ko apirilaren 6a baino lehen –data horretan bukatu baitzen entzunaldi publikoko izapidea–, izapide horiek bete zirenean indarrean zegoen araudiaren arabera ebatziko dira.

Xedapen horrek erreferentziatzko data bat finkatzen du alde batetik, eta, bestetik, ezartzen du zer eskakizun bete behar dituzten data hori baino lehenago aurkeztutako eskabideek errege-dekretuko xedapenak ez dakizkien aplikatzekoak izan. Hori horrela, foru arauan zenbait alderdi arautzea komeni da.

Hasteko, zehaztu behar da errege-dekretua indarrean jarri baino lehen abian zeuden eta dekretuan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena gainditzen zuten ustiatzeko ahalmen horri eusten ahalko diotela, baina ezin izanen dutela handiagotu, inola ere. Ondorio horietarako, ustiatzeko horien indarreko ingurumen-baimenean jasotako gehieneko ahalmena hartuko da kontuan.

Bigarrenik, izapidetan dauden espedienteak ebaztean aplikatu beharreko araubide juridikoa zehaztu behar da, eta, horretarako, errege-dekretuaren lehen xedapen iragankorrean finkatutako data hartuko da erreferentzia gisa. Hori horrela, 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztutako behitegien baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, aldiz, data horren ondoren aurkeztutakoei, foru lege honetan xedatutakoa.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen da.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten dira Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen manu hauek, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

**Bat.** 28. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“28. artikulua. Distantzia eta gehieneko ekoizpen-ahalmena.

1. Gaixotasunak zabaltzea eragozteko eta horien ondorioak ekiditeko prebentzio-neurri gisa, abeltzaintzako ustiatzeko erregelamendu bidez ezartzen diren distantziak gordeko dituzte bai haien artean, bai eta haietatik abere kontzentrazioetarako eta abeltzaintzaren arloko jar-

duera agroindustrialetarako edo haiekin lotutakoetarako instalazioei begira ere. Distantzia horiek zehazteko, kontuan hartuko dira inguruabar geografikoak eta abere espezieen ezaugarriak, gehieneko ekoizpen-ahalmena, ustiatzeko izaera intentsiboa edo estentsiboa eta arrisku epidemiologikoa.

2. Abeltzietarako gehieneko ekoizpen-ahalmen batzuk ezartzen dira, ustiatzeko berrien edo orain daudenen handitzeen neurriak ez daitezen izan foru lege honen 1. eranskinean ezartzen diren gehienekoak baino handiagoak.

3. I. eranskinean adierazitako gehieneko ekoizpen-ahalmena aplikatzekoa izanen zaie bai abeltzietari bai lehendik dauden abeltzietari handitzen direnean ere. Edonola ere, abeltzietan ezin izanen da instalazioen aldaketarik edo ekoizpen-norabidearen aldaketarik egin, horiek gehieneko ahalmena handitzea ekartzen badute”.

**Bi.** 39. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Agintari eskudunak animalia hiltzea nahitaezkozat deklaratu gero, kalte-ordaina emanen da, indarrean dauden arau eta baremoen arabera. I. eranskinean ezarritako plaza-, AzLU- edo abere-kopuruaren arabera kalte-ordaina emanen da gehieneko”.

**Hiru.** 54. artikulua apartatu bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“10. Hiru hilabete baino gehiagoz % 2,5 eta % 4,99 bitarte gainditzea I. eranskinean ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena. I. eranskinean ezarritako gehieneko ahalmena baino handiagoa duten baimendutako abeltzietari kasuan, ehuneko hori aplikatuko zaio abeltzietari duen ingurumen-baimenaren arabera dagokionari”.

**Lau.** 55. artikulua apartatu berri bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“29. Hiru hilabete baino gehiagoz % 5 eta % 9,99 bitarte gainditzea I. eranskinean ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena. I. eranskinean ezarritako gehieneko ahalmena baino handiagoa duten baimendutako abeltzietari kasuan, ehuneko hori aplikatuko zaio abeltzietari duen ingurumen-baimenaren arabera dagokionari”.

**Bost.** 56. artikulua apartatu berri bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“14. Hiru hilabete baino gehiagoz % 10 edo gehiago gainditzea I. eranskinean ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena. I. eranskinean ezarritako gehieneko ahalmena baino handiagoa duten baimendutako abeltzietari kasuan, ehuneko

hori aplikatuko zaio abeltegiak duen ingurumen-baimenaren arabera dagokionari”.

Sei. Bosgarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, eta testu hau izanen du:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituzten ustiategiak.

Abian dauden eta behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretua indarrean jarri baino lehenagotik dekretu horretan ezarritako gehieneko ekoizpen-ahalmena baino handiagoa duten ustiategiek ahalmen horri eusten ahalko diote, baina ezin izanen dute handiagotu, inola ere. Ondorio horietarako, ustiategi horien indarreko ingurumen-baimenean jasotako gehieneko ahalmena hartuko da kontuan. Ezin izanen dute gehieneko neurri hori handitzea dakarren aldaketarik egin instalazioan, ez eta ekoizpenaren orientazioan ere”.

Zazpi. Hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Izapidetan dauden espedienteen ebazpena.

1. 2022ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztutako behitegien —ustiategi berriak, egun dauden ustiategien aldaketa eta/edo handitzea edo orientazio zooteknikoaren aldaketak barne hartuta— baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, behitegien oinarritzko antolamendurako arauak ezartzen dituen abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko zaie.

2. 2022ko apirilaren 6aren ondoren aurkeztutako behitegien —ustiategi berriak, egun dauden ustiategien aldaketa eta/edo handitzea edo orientazio zooteknikoaren aldaketak barne hartuta— baimenei dagozkien espedientei, administrazio-bidean ez bada horien gaineko ebazpen irmorik eman, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, eta, beraz, ezin izanen dituzte gainditu I. eranskinean finkatutako gehieneko neurriak”.

Zortzi. I. eranskin berri bat gehitzen da, testu honekin:

“I. eranskina  
Abeltegien gehieneko ekoizpen-ahalmena  
(AzLU edo plaza kopuruaren arabera)

Txerri-ustiategien tamaina	AzLU (1) / plazak 864 AzLU
Broiler oilaskoak eta hegaztiak oro har	300.000 plaza
Arrautzetarako eta hazteko oiloak	300.000 plaza
Ugalketarako oiloak eta haiek haztea	60.000 plaza
Kanpora irteten diren hegaztiak	50.000 plaza
Galeperrak	600.000 plaza
Esnetarako behiak	850 AzLU
Haragitarako behiak (2)	850 AzLU
Esnetarako ardi eta ahuntzak	6.000 ugaltzaile edo 600 AzLU
Haragitarako ardi eta ahuntzak	8.000 ugaltzaile edo 800 AzLU
Zaldiak	1250 AzLU
Untxiak	600 AzLU
Erleen kokalekua (3)	200 erlauntza
Espezie bat baino gehiago dituzten ustiategiak	1250 AzLU

(1) AzLU. Koadro honetako AzLUak kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 31/2019 Foru Dekretuaren 1. eranskinetako AzLUen baliokidetzak

(2) Zezenketetarako aziendaren ustiategiak barne

(3) Gehieneko tamaina erleen kokalekuena da, baina ustiategi batek berak kokaleku bat baino gehiago izan ditzake”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



**10-23/PRO-00003. Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko martxoaren 16an egindako bileran, erabaki du honako foru lege proposamen hau aintzat ez hartzea: "Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa". Foru

lege proposamena EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuten eta 2023ko otsailaren 17ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-23/PRO-00005. Foru Lege proposamena, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko martxoaren 16an egindako bileran, ezetsi egin du Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**10-23/MOC-00027. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hilabeteko epean eratu dezan NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea**

*EKONOMIA ETA OGASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak 2023ko martxoaren 21ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hilabeteko epean eratu dezan NEKPn biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoetako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean sor dezan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan biltzen diren Nafarroako Gobernuko enpresa publikoentzako lehen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**10-21/PON-00003. Txostena, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko eratutako ponentziarena.**

*KULTURA ETA KIROL BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko eratutako ponentziaren txostena, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak 2023ko martxoaren 21ean onetsia.

Iruñean, 2023ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Txostena, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko eratutako ponentziarena**

**1.- Aurrekariak**

Lehena. 2021eko martxoaren 26kok erabakiz, Kultura eta Kirol Batzordeak, Maiorga Ramírez Erro foru parlamentariaren proposamenari jarraituz, azterlanerako ponentzia bat eratu zuen, Nafarroako kultur jardueraren multzoa duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostekoa.

Bigarrena. Ponentzia hori 2021eko apirilaren 28an eratu zen, foru parlamentari hauekin, zeinak nor bere taldeak hautatuak izan baitziren:

Navarra Suma talde parlamentariotik, Raquel Garbayo Berdonces andrea eta, ordezkoko gisa, Alberto Bonilla Zafra jauna; Nafarroako Alderdi sozialistaren talde parlamentariotik, Carlos Mena Blasco jauna eta, ordezkoko gisa, Jorge Aguirre Oviedo jauna; Geroa Bai talde parlamentariotik, Ana Isabel Ansa Ascunce andrea eta, ordezkoko

gisa, Pablo Azcona Molinet jauna; EH Bildu Nafarroa talde parlamentariotik, Maiorga Ramírez Erro jauna eta, ordezkoko gisa, Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea; Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartetik, Mikel Buil García jauna eta, ordezkoko gisa, Ainhoa Aznárez Igarza andrea; eta, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistotik, María Luisa de Simón Caballero andrea.

Urgazle-lanetan ponentziarentzat denboran zehar aritu diren legelariak Manuel Pulido Quecedo jauna eta ondoren Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna izan dira.

Eratze-bilkuran Carlos Mena Blasco jauna hautatu zuten ponentziako lehendakari, eta barne funtzionamendurako arauak onetsi zituzten.

Hirugarrena. Ponentziaren asmoa zen kultur jarduerako zeresandunak diren eragileen gomendioa, proposamenak eta ekarpenak jasoko zituen txosten bat prestatzea; hain zuzen ere, bai erakunde publikoenak (nazioko gobernua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, toki entitateak eta sektore publikoa), bai lanbide, enpresa eta sindikatuen kolektibo desberdinenak, bai eta, nortasun juridikorik gabekoak izan arren, Foru Komunitatearen lurraldeko kultur jardueran esku eta parte hartzen duten entitateenak ere. Bereziki, ponentziak xede hauek zituen:

a) Kultur jarduerak sektore publikoan kontratatu eta kudeatzeko jardunbide egokien kode bat idaztea.

b) Artistaren Nafar Estatutu baterako oinarriak paratzea.

c) Lege-proiekturako ekarpenak egitea edo, Nafarroako Gobernuaren berandutzea ikusirik, kulturako lanbideei buruzko foru lege proposamen bat egitea.

d) Kontratu Publikoari buruzko Foru Legean egiteko moduko aldaketak aztertzea.

e) Dirulaguntzei buruzko Legean egiteko moduko aldaketak aztertzea.

Lehendabizi, Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuak berrogeita hemeretzi elkarte eta talde kulturaleko zerrenda bat helarazi zion ponentziari, eta honek galdetegi bat bidali zien haiei, beren iritzia eta proposamenak adieraz zituzten ponentziak aztergai zituen gaien gainean. Guztira hogeita zortzi elkarte erantzun zuten, eta haien ekarpenak ponentziaren espedientean jaso dira.

Ponentziaren jarduna antolatzearen, hasiera bateko bilkura-egutegi bat onetsi zen, zeresana duten gizarte-eragile guztien agerraldia ahalbidetzeko moduan, eta Parlamentuko artxibo-zerbitzuei eskatu zitzaizkien dokumentazio jori eta askotariko bat presta zezaten, horren bidez azterkizunak diziplinarteko ikuspegiz analizatzeko, halako moldez non azterkizun horiek zenbait herrialde eta erregiotan dituzten nondik norakoak iruditaratu ahalko baitziren. Bestalde, barne-antolabilera batzuk ere egin ziren, eta haietan luzatu egin zen ponentziari hasiera batean eman zitzaion iraupena, bilera-egutegia finkatu zen eta erabaki zen beste kolektibo eta elkarte batzuei ere dei egitea ponentzian parte har zezaten.

Lanetan zehar eta ponentziak proposatuta, Kultura eta Kirol Batzordeak txosten berezi bat onetsi zuen, kultur jardura Nafarroako Foru Komunitatean modu seguruan bultzatzeko. Aipatu dokumentuak Nafarroako erakundeei dei egiten zien neurri-multzo bat har zezaten, 2021eko udan kultur jardura areagotzeko, osasun-ikuspegitik segurtasunezkoak ziren baldintzetan, Covid-19aren pandemiaren ondoriozko atzeraldiaren ostean. Txosten hori 2021eko uztailaren 28ko eta 93. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Ponentziaren jarduna hogeita hiru bilkuratan mamitu da, zeinak 2021eko apirilaren 28tik 2022ko ekainaren 17ra bitartean egin baitira, eta haietara Nafarroako kultur sektorearen interes desberdinen ordezkartasuna duten honako erakunde eta organizazioak agertu dira:

– Sektore publikotik: Espainiako Gobernuak Kultura eta Kirol Ministerioa, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentua, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentua, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, NICDO-Nafarroak Bultzatzen du Kultura, Kirola eta Aisialdia sozietate publikoa eta Nafarroako Antzoki Sarea.

– Enpresen aldetik: Sedena SL, Editargi-Nafarroako Editoreen Elkarte, NAPAR-Ikus-entzunezkoen Ekoizpen Nafarra, ESNA-Nafarroa Eszena enpresa-elkarte eta ANAIM-Nafarroako Musika-industriaren Elkarte.

– Sindikatuak ordezkaturik: Comisiones Obreras (CCOO), Eusko Langileen Alkartasuna (ELA), Unión General de Trabajadores (UGT), Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB).

– Azkenik, sektoreko profesional desberdinak ordezkaturik: Nafarroako Ikuskizun Teknikarien Elkarte, KUNA-Nafarroako Kultur Kudeatzaileen Elkarte, Nafarroako Liburuzainen Elkarte, Nafarroako Zaharberritzaileen Taldea, Nafar Idazleen Elkarte, Nafarroako Musikarien Elkarte, Ondarezain Elkarte, EMAN-Nafarroako Musika Eszena Elkarteratua, FETEAN-Nafarroako Amateur Antzerki Federazioa, Nafarroako Dantzarien Biltzarra eta Nafarroako Dantza Ordezkariei Kolektiboa.

Mintzaldirik gehienetan, agerraldia egindako kolektiboek zein erakundeek ponentziaren eskura informazio mamitsu eta askotarikoa jarri dute, bai eta kultur jardueraren garapenerako proposamen-eta gomendio-zerrenda bat ere, horien artean besteak beste jasorik legegintza-neurriak eta kultur sektorearen sustapen eta aurrerabidean zeresana duten botere publikoentzako jardute-orientabideak.

## 2.- Eskumen-mugartea

Ponentzia honek diziplinarteko ikuspegitik helitzen dio kulturari, halako moldez non neurri desberdinak proposatzen baititu, bai sektoreko profesionalak juridikoki babesteko, bai kulturari esleituriko baliabide publikoen kudeaketan eta administratzean eraginkortasuna eta efizientzia ahalbidetzeko. Txosten honetan bildutako proposamenek berekin dakarte Nafarroako Foru Komunitateak eskusibotasunez nahiz Estatuarekin partekatuta dauzkan eskumen-esparru desberdinak baliatzea.

Hasteko eta behin, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua Nafarroako Foru Komunitateari kultur alorreko eskumen eskusiboa esleitzen dio, Estatuarekiko koordinaziopean (zortzigarren apartatua); Estatuaren titulartasunekoak ez diren artxiboak, liburutegiak, museoak, hemerrotekak eta kultura-gordailurako gainerako zentroak (hamargarren apartatua); kirolen eta aisiaren erabilera egokiaren sustapena (hamalagarren apartatua); ikuskizunak (hamabosgarren apartatua); kultur eta arte elkarteak

(hemeretzigarren apartatua); eta fundazioak (hogeigarren apartatua).

Halaber, kontratazio publikoari eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako dirulaguntzei buruzko proposamenei heltzen zaie. Sektore horietan, Nafarroak eskumena dauka, Lorafnako 49.1 d) eta 45. artikuluen arabera, eta eskumen hori gauzatu du Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean.

Horregatik, ponentziak Nafarroako kultur jardueraren osotasuna duindu, orekatu, areagotu eta etorkizunerako bermatzeko proposatzen dituen urrats publikoak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen horien guztien erabileran txertatuta daude.

### **3.- Ponentziak atera dituen konklusioak eta egiten dituen proposamenak**

**Lehena.**– Kultur jarduerak sektore publikoan kontratatu eta kudeatzeko jardunbide egokien kode bat idaztea.

Agerraldi desberdinen eta azterturiko dokumentazioaren bitartez ondorioztatzen da ezen, musika-ikuskizunei eta oro har kultur-ikuskizunei dagokienez, egungo errealitateak ezaugarri dituela prekaritatea, ziurgabetasuna eta, kasu askotan, emanaldi horien kontrataziorako harturiko erabakien arbitrarietatea. Ez dago kontratazio-homogeneotasunik, arte-sektoreari modua emanen dionik bere jarduera aurreikusi eta hori gutxienezko ziurtasun- edo oreka-esperoz garatzeko. Hauteman da jokabide orokortua dela lan-osasuneko organo eskudunek jaulkitako araubetekizunen betetzea, laneko segurtasun eta higienerari buruzkoa, ez dela ikuskatzen, ez eta berrikusten ere kontraturiko kultur taldeko partaide eta kide guztiak beren zereginean aritzeko altan emanda ote dauden ere.

Halaber, kasu askotan egiaztatu denez, laneko segurtasun eta osasuneko arauak betetzearekin zorroztz diharduten profesionalak, zeinek exijitzen baitute kontratatze-entitateek kasuko neurriak har ditzatela, zailtasun handiagoak topatu ohi dituzte geroagoko ekitaldietan kontratatuak izateko, eta horrek sorgin-gurpil bat sortzen du, kalte egiten diena sektoreko kontratazio-baldintzei.

Bestetik, kulturgintzan hitzarmenik ez egoteak esan nahi du ez dagoela heldu ahal izateko moduko soldata-taularik, entitate publikoek beraiek lizitatzen dituzten kontratuen prezioa finkatzekorik, eta horrek sektore hau prekaritatezkoa eta lehia-

kortasunik gabekoa bihurtzen du; eta bertako jarduera, irregulartasunekoa.

Era berean, ez dago kulturgintzako arlo desberdinetako jarduera bermatzeko plangintzarik, ez eta obrak eskuratu eta diziplina horiek sustatzeko politikarik ere.

Hori guztia dela-eta, ponentziak adierazten du beharrezkoa dela administrazioek benetako konpromisoa hartzea kulturgintzaren duintasunarekin, eta Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa premiatzen ditu orain arte bazter utzitako eginkizun honi hel diezaioten. Gainera, funtsezkoa da administrazio publikoek xehe-xehe kontrola ditzaten kontratazio-prozeduren fase guztiak, pleguak idaztetik kontratua bete arte.

Hori horrela, ponentzia honek urgentziazko deritzo honako urratsak egiteari:

– Kultur jarduerak kontratatu eta kudeatzeko jarduera egokien kode bat elkarlanean idatz dezatela Kultura Departamentuak, Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak eta hibridazio publikoko beste gune batzuek, Nafarroako Antzoki Sareak kasu, Nafarroako lurralde osoan aplikatua izateko.

– Xedatzea ezen aipatu kodea konpromiso izan dadila, sinatzaile nahiz atxikiak diren alderdi guztiek bete beharrezkoa, Kultura Departamentuaren eta toki entitateen kontratazio publikorako ezinbesteko betebeharrak gisa.

– Bultzada ematea aisialdiaren eta kulturaren sektoreak Nafarroako lehenbiziko hitzarmen kolektiboa idatzita eta onetsita eduki dezan. Hitzarmen horrek sektore honetako lan-baldintzak arautzeko zuzenbide-mugartea zehaztuko du, eta horrenbestez, ezinbestean bete beharrezkoa izanen zaie enpresa pribatu guztiei. Halaber, loteslea izanen zaie erakunde eta administrazio publiko guztiei, lizitazio publikoetako pleguak idazterakoan. Hitzarmenean sartuta egonen dira beste ekitaldi batzuetan kontratatzen diren kultur edukidun albo-jarduera guztiak. Bestalde, hitzarmenean jasoko dira, besteak beste, lanbide-arriskuen eta lan-osasunaren gaineko araubidea, bai eta ikuskapen- eta kontrolaren araubidea ere. Hitzarmenerako negoziazio-mahaian elkarte profesionalak parte hartuko dute, aholkulari kualifikatu bezala.

– Kulturaren atari digitalaren bitartez katalogo eguneratu bat, espezialitateka xehatua, jar dadin toki-entitateen eskura, Nafarroako kultur sektore osoaren kontratazioa errazteko eta sustatzeko.



– Tokian tokiko taldeen partaidetza sustatzea hitzarmenen bitartez, folklore-elementu berekiak babestuta.

–Kultura Departamentuan berariazko neurri eta urratsak ahalbide daitezen, kultur esparru desberdinei sostengua eta aholkularitza ematekoak.

– Kultura Departamentuaren aurrekontua handitu dadin, Europako estandarretara iristeko, halako moldez non Nafarroako aurrekontu orokorren % 1,5 hartuko baitu.

– Berma dadin ezen kulturagintza gauzatzeko dela lan-segurtasuneko parametroen arabera eta behar bezalako lanbide- eta gizarte-estaldurekin; horretarako, baliabide eta laguntza publikoak bideratuko dira.

– Era guztietako obrak erosteko plangintza bat susta dadin Nafarroako erakunde publiko guztientzat, eta arte-diziplinen multzo osoari bultzada ematea.

– Azterlan bat egin dadin Nafarroako administrazio publikoetan beharrezkoak diren lanpostuei buruz, eta horien lanbide-eskakizunak zehatz daitezen.

– Biztanleriarik urrirenako toki entitateek kultur kudeaketarako dituzten langile-beharrizanak asetzeko formulak proposa daitezen.

– Abusua ekiditea, enplegu-egonkortasuneko neurriak faboratzea, eta administrazioaren barrenean lan berdina egin arren lan-baldintza desberdinetan diharduten langileen arteko desberdinak onbideratu eta saihestea.

**Bigarrena.-** Artistaren Nafar Estatutua onesteko oinarriak ezartzea.

Ponentzian aukera izan dugu Europan dauden Artistaren Estatutu desberdinak ezagutzeko eta Kultura Ministerioko zenbait kargudunekin zuzeneko harremanean egoteko, "Artistaren Estatutu" baten prestaketa dela-eta, Gorte Nagusietan aurkeztekoa. Alabaina, gaur den egunean prekaritatea asalagarria da nagusi artelangintzaren tratamenduan eta arauzko estalduran, Frantzia eta Belgikako egoerekin alderatuta (bertakoak izaki azterturiko errealitateak hurbilenak).

Ponentzia honen jardueraren amaiera-egunean, egiaztatzen da aurrerapauso muntadunak eman direla Estatuaren eskumen eskusibokoak diren alor batzuetako lan-estalduran; baina horiek ez dira iristen azterturiko "Artistaren Estatutu" eta-koekin alderatzeko moduan duintzera artelangintza. Ebazkizun berekiek, hala nola aldizkakotasunak eta sormen-lanaldiaren ponderazioak,

behartzen dute gaur egun oraindik ere hartu gabe dirauten erabaki batzuk hartzea.

Nafarroaren eskumen propioen mugarteari dagokionez (eskumen fiskalak, ekonomikoak eta kulturalak), Nafarroako Gobernuak ez du inolako ekimenik gauzatu, eta haren jarduna mugatu da Estatuak onetsitako neurri mugatuaren bozgorailu gisa aritzera. Horrenbestez, irizten da Nafarroako Gobernuak "Artistaren Nafar Estatutu" bat idazteari ekin behar diola, zeinak zehaztuko baititu Nafarroan arte-jarduna babestu, duindu eta bultzatzera joko duten neurriak, ezertan galarazi gabe Estatuaren eskumenetatik eratorritako neurriak. Bestek beste, "Artistaren Nafar Estatutuak" honako hauek jasoko ditu:

– Ekintza bereziak taxutzea, PFEZ, sozietateen gaineko zerga, BEZ eta bestelako zerga batzuen ordainketak murriztera, hobaritzera edo malgutzera bideratuak, halako moldez non kobraketa-uneke zergapetze errazagoa ahalbidetuko baita; emandako zerbitzuen ordainketa ekitaldi desberdinetan zatikatzeko modua; langile autonomoentzat PFEZa murrizteko neurriak; artelangintzan jarduteko beharrezkoak diren ondandun jakin batzuetan eginiko inbertsioei kenkariak aplikatzeko modua (adibidez, musika-tresnetan, ikuskizun-teknikarien ondasunak...), bai eta prestakuntzaren eta entrenamenduaren ondoriozko gastuak ere kentzekoa.

– Estatutuak sektorearen zenbait berezitasun aintzat hartu beharko ditu; adibidez, profesionalen lan-jardunaren aldizkakotasuna; halaber, amateurraren figura arautuko du.

– Kotizazio gabeko prestazioak Nafarroan bateragarriak izatea kultur jardueretatik eratorritako diru-sarrerekin, lanbide arteko gutxieneko soldata bitarte.

– Estatutuak aurreikusiko du errolda baten sorrera, eta aurretiaz zehaztuko ditu errolda horretan jasoa izateko betekizunak.

– Erakundearteko batzorde bat eratuko da, estatutua kudeatu, bultzatu eta betetzeko.

– Kultur Eskubideei buruzko Legean eta Kulturako Lanbideei buruzko etorkizuneko Legean txertatzea Artistaren Nafar Estatutuaren testua.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Gobernuak aurkeztu beharreko foru-lege proiektuari ekarpenak egitea edo, berandutza-kasuan, Nafarroako Parlamentutik abiaraztea kulturako lanbideei buruzko foru-lege proposamen bat.

Nahiz eta Nafarroako Eskubide Kulturalen buruzko urtarilaren 15eko 1/2019 Foru Legean

jasota etorri kultur sektoreko lanbideak definitu eta arautuko dituen foru lege bat ezinbestez onetsi beharra, Nafarroako Gobernuak ez du bete legegintzako ekimen bat aurkezteko duen betebeharra. Izan ere, testu hori prestatu aurrekoak diren zeregin ia guztiek oraindik ere diraute Nafarroako Gobernuak egin gabe. Beraz, ernamuinean besterik ez dagoen egoera honetan, ponentziari ezinezko gertatu zaio lege-idazketan aurrerapausoak ematea.

Hori horrela, ponentziak erabaki du Nafarroako Gobernuari eskatzea Nafarroako Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege bat aurkezteko duen legezko betebeharra bete dezan, eta berehala ekin diezaion hori idazteko oinarritzko lanei.

Ekimen horretan lanbide-multzo oso bat aurrekusi beharko du, eta lanbide horietako bakoitzean aritzera iristeko behar den kualifikazioa zehaztu. Halatan, honakoak ezarriko dira:

- Lanpostu ezberdinetan jarduteko beharrezkoak diren prestakuntza eta eskumenak. Horiek zerikusia izan beharko dute egungo prestakuntza arautuarekin, unibertsitatekoa izan nahiz Lanbide Heziketakoa izan.

- Ekonomia-jardueren Saillkapen Nazionalen berrikuspen bat, lanbide bakoitzak epigrafe bakoitzean aintzatetsia izan dela senti dezan.

- Kasu berezietako kualifikazio-betekizunak eta kualifikazio berrietarako egokitzapenak.

**Laugarrena.-** Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen balizko aldaketak aztertzea.

Ponentzia konturatu da Kontratuei buruzko Foru Legea alderdi batzuetan ez zaiela egokitzen kulturagintzaren berezitasunei. Era berean, administrazio publiko desberdinetako kontu-hartzailetza zerbitzuek ez dute beti interpretazio homogeneo bat egiten; horren ondorioz ere, kulturagintza zigortuta suertatzen da.

Horregatik guztiagatik, komenigarritzat jotzen da:

- Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioek dokumentu bat egin dezala, kontratazio eta dirulaguntzen alorrean interpretaziorako gida gisa erabili ahal izan dezaten toki entitateetako kontu-hartzailetza zerbitzuek.

- Kulturagintzaren alorreko kontratuen aplikazio-esparrua zehaztea, Kontratu publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarriak zehazten duenari jarraituz.

- Modua ematea kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruzko betekizunak eta kaudimen tekniko edo profesionalen berma dezaten lizitatuzaileak modua izatea aukera-berdintasuneko egoera erreal batean parte hartzeko.

- Aurreikustea halako irizpideak txertatzen direla, zeinek modua emanen baitute enpresa txikiak eta autonomoak sustatzeko, bai eta artista individual eta autonomoen presentzia errazteko ere, kontratuei buruzko foru legedi indardunak urraturiko bidetik.

- Esleipen-hartzaile diren entitateak premia-tzea tinko zaindu dezaten laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia zaintzen dela, bai eta lan-arloko legedia eta kasuan kasuko hitzarmen kolektiboak ere, halakorik badagoen kasuetan.

- Langile-subrogazioari buruzko irizpideak ezartzea, saiheste aldera enpresa desberdinek egindako lanaldi partzialerako multikontratazioa.

**Bosgarrena.-** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen balizko aldaketak.

Ponentziak sakonki aztertu ditu hala legea nola horren funtzionamendua, eta horren aplikazioan akats batzuk izan direla hauteman du; besteak beste, deialdiak urtearen bigarren seihilekoan argitara ematea, noiz eta jarduerak urte naturalaren amaiera baino lehenagorako behar dutenean burututa egon.

Jokabide justifikaezin horren ondorioz, zenbait problema larri sortzen dira; besteak beste, kultur jarduera urrian eta azaroan kontzentratzea, edo erakunde askori epe-kontu huts batengatik ezinezkoa izatea deialdiek ezartzen dituzten betekizunak betezea eta, beraz, esleituriko dirulaguntza galtzea.

Horretan oinarrituz, ponentziak honakoak erabakitzen ditu:

- Kultura Departamentua premiatzea deialdiak urte bakoitzaren lehen zortzi asteetan argitara ditzan.

- Laguntza-sistema hobe bat taxutzea, proiektu baten prestaketa-prozesu guztiak aintzat hartuko dituen, sormen eta ekoizpen artistikoa aintzat hartuta eta halatan bideratuta kalitatezkoak, berri-tzaileak eta jasangarriak diren proiektuak garatu ahal izateko behar den denbora.

- Proiektu desberdinetako egiletza-gastuak zinezko gastutzat hartuak izan daitezen beharrezkoak diren bideak paratzea, beharrezkotzat eta aurkeztu den proiektutik eratorritzat jotzen baitira. Horretarako, logistika- eta bitartekaritza-gastuak ere barne hartu beharko dira.

– Modua ematea deialdian esleitu gabe edo konprometitu gabe dauden kredituak bideratu ahal izan daitezen deialdi horretan parte hartu bai baina hasiera batean dirulaguntzarik eman ez zaien proiektuetara, edo, bestela dirulaguntza jaso egin duten proiektuetarako zenbatekoa handitzera, ezein proposamen ezetsi ez den kasuetan. Hori guztia, ezertan galarazi gabe beste kultur jarduera batean dirulaguntza-deialdi berri bat abiaraztea.

– Urte anitzeko finantzaketa-eredu berri eta eficiente bat ezartzeko aproposa izan den arau-mugarte bat tankeratzea.

– Dirulaguntza-deialdiak sinpletzea, aintzat harturik kudeatze-organoarentzako eta onuradunarentzako eraginkortasunaren eta arazoizkotasunaren printzipioak, eta oreka bat bilatuz jarraipen zein kontrolaren eta baldintza zein bete-kizun dokumentalen artean. Orobat bermatu beharko da diruz lagundutako jarduerak deitu eta egiteko epeak urte natural osoaren barrenekoak izatea.

– Dirulaguntza izendunak beste dirulaguntza batzuekin bateragarri direla ezartzea, jarduera finantzatu zenbatekoraino. Aurretiazko justifikazioa aurreikustea, Estatuko legean agertzen den antzeratsu, non auditore batek kontu-ziurtapena egiten baitu, nahiz eta kultura-alorreko eskumena duen departamentuak betiere izan den jatorrizko dokumentazioa eskuratzeko aukera, hala eskatuz gero.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 33. artikulua aldatzea, kultur proiektuak ere barne har daitezen, eta horrela erantzutea proiektua egokiro exekutatzeko beharrezkoak diren diru-aurrerakinatarako eskaerari.

– Diziiplina anitzeko proiektuetarako laguntzak eta dirulaguntzak aurreikusitako eta ezartzea.

#### **Seigarrena.-** Bestelako ohartarazpenak:

Ponentziaren lanetan zehar azaleratzen joan dira hasiera bateko helburuetan hertsiki jaso gabe zeuden zenbait beharrezkoak, halere zuzenean lotuta daudenak Nafarroako kultur jarduera duindu nahiarekin.

Hori horrela, ponentziak honako lege hauek alda daitezkeen eskatzen du:

– Nafarroako liburutegi-sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea aldatu eta eguneratzea, halako moldez non liburutegia eta horrek betetzen dituen eginkizunak aintzat hartuko baitira, errealitatearen arabera eguneratuz.

– Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatu eta eguneratzea, tituludun kontserbatzaile eta zaharberritzaileen presentzia aurreikusiz; ez beste titulazio batzuen.

– Museoei eta Nafarroako Bilduma Museografi-ko Iraunkorrei buruzko uztailaren 2ko 10/2009 Foru Legea aldatu eta eguneratzea, gaur egun bertan jaso gabe dauden laurogeitik gora museo eta interpretazio-zentroen aitorpena eginez.

– Sektorearekiko partaidetza-prozesu bat irekitzea, herri-kulturaren eta tradizioaren sustapen eta babeserako lege bat prestatzea xede.

Era berean, honako beharrezkoak konkretu hauek hauteman dira –horietako batzuei jadanik heldu zaie aurrekontu-eztabaidetan–:

– Liburutegi-langileentzako laguntza.

– Nafarroan literatur txapelketa bat sortzea.

– Nafarroako Folklore Mahaia indartzea.

– SICNA-Kulturaren Informaziorako Sistema hobetzea, kultur plangintza integral baterako oinarriko datuak edukitzeko.

– Mugakide diren autonomia erkidegoekin mugaz gaindiko kultur jardueran eta koordinazioan sakontzea.

– NICDOren jardura Kultur Eskubideei buruzko Legean eta kultur plangintzan zehazturiko helburuekin uztartzea.

– Arte-sorkuntzaren alorreko unibertsitate-prestakuntzako eskaintza bat aztertu eta, kasu bada, aktibatzea.

– Mezenasgo Legea indartu eta ezagutaraztea, mezenasgoari atxikitzearen onurak balioan jartzeko ekintzen bitartez.

– Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko Legea behar adinako baliabidez hornitzea.

– Kultur politikak udalekin koordinatzeko foroari bultzada ematea (ia ez da deitua izan).

– Nafarroa Suspertu Planean ondarea dela-eta onetsitako neurriak garatzea, behar izanez gero hitzarmenak ere sinatuz.

– Kulturaren I. Plan Estrategikoaren abaroen egindako urratsak ebaluatzea, eta plan berri bati ekitea.

– Foru Komunitateko kultur eraikinak irisgarri bihurtzeko beharrezkoak diren ekintzak egitea.

– Nafarroako Parlamentuaren alorrean, Mahaia premiatzea beharrezkoak diren jarraibideak jaulki ditzan, Legebiltzarrak bere ondareko artelanak erostearen gaineko irizpide batzuk zehaztekoak, bai eta horrelako erosketak maiztasun jakin batekin egin daitezkeen sustatzea ere, Nafarroako arte eta kultur sektoreari sostengua emateko xedez.







